

Topalekua

79 zk. 2013ko martxoa

marzo 2013 - n.º 79

1. orr.: *Gizarte kontseiluak 2012ko aurrekontuaren likidazioa onartu du*

Ministroak autonomia erkidegoei aurkeztu die Unibertsitate-Sistemari buruzko txostena, adituek egina

2-3. orr.: *Euskadik zazpi urtean bikoiztu zuen ekoizpen zientifikoa*

4. orr.: *EAE: Ikasleko gastu arruntik handiena duen autonomia erkidegoa*

2012an, EAEtik etorritako diru-sarreraren % 35,4 murriztu zen; eta lau urtean % 70.8ko murrizketa egin da

GIZARTE KONTSEILUAK 2012KO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA ONARTU DU

UPV/EHUko Gizarte Kontseiluaren osoko bilkurak 2013ko martxoaren 13an Bilbon egin zuen bileran 2012ko Aurrekontuaren likidazioa onartu zuen, ikuskaritza-txostenarekin batera. Urteko ekitaldian nabaria izan da Autonomia Erkidegotik egindako transferentzien beherakada: zehazki, 0,35 milioi euro gutxiago jaso dira, hau da, aurreko ekitaldian baino % 35,4

gutxiago; eta 2008. urtearekin erkatuz, % 70,8 gutxiago.

Aurrekontuaren likidazio horretan adierazi da Gizarte Kontseiluak biziki txikiagotu zuela gastua, diru-sarreraren murriztapena dela-medio. Gastuak lan eta ikerketa teknikoetan eta funtzionamendu arloan gutxiagotu ziren, batik bat.

MINISTROAK AUTONOMIA ERKIDEGOEI AURKEZTU DIE UNIBERTSITATE-SISTEMARI BURUZKO TXOSTENA, ADITUEK EGINA

Martxoaren 13an, José Ignacio Wert Hezkuntza ministroak Unibertsitate Politikaren Batzar Nagusiari, hots, autonomia erkidego guztietako ordezkariak biltzen dituen erakundeari, aurkeztu zizkion *Espainiako unibertsitate-sistema aldatzeko eta bere kalitatea eta efizientzia hobetzeko proposamenei buruzko txostenaren* ondorioak. Ministerioak izendatu dituen adituen talde batek idatzi du txosten hori, eta unibertsitate-sistemaren aldaketa egiteko erabiliko da.


Ministroak jakinarazi zuen une hartatik aurrera bi hilabeteko epea hasiko zela, Batzar Nagusiak autonomia erkidegoekin lan egin zezan, aldaketaren lerro nagusiak deskribatze aldera.

Oro har, adituek egindako txostenak hauxe proposatzen du:

Errektorea eta gobernu-erakundeak aukatzea: Txostenak proposatzen du gobernu-erakundeak murriztea, «asko direlako, eta kide gehiegi dituztelako». Honako hauek defendatzen ditu: «gardentasun handiagoa, kide anitzeko organoen tamaina txikiagotzea, organo haietan kanpoko erakundeak, estatukoek edo atzerrikoek leku handiagoa izatea eta kudeaketa-lanak gehiago profesionalizatzea». Organo bakar bat sortzea proposatzen du, eta organo horri Unibertsitateko Kontseilua deitzea. Hona hemen proposatutako osaera: barneko kideek % 50 osatuko dute (klastroak eskatuta, eta klastroak kide gutxiago izango du); autonomia erkidegoak hautatutako kideek % 25 osatuko dute; eta gainerakoak aurreko bi taldeek aukeratuko dituzte. Organo berri horrek zuzenean izendatuko du errektorea. Errektoreak

EUSKADIK ZAZPI URTEAN BIKOIZTU ZUEN EKOIZPEN ZIENTIFIKOA

Ikerbasquek egin duen *Zientzia Euskadin 2012 Txostenaren* arabera, 2003. eta 2010. urte bitartean, Euskadiko ekoizpen zientifikoa bikoiztu egin zen; horregatik, Euskal Autonomia Erkidegoa seigarrena zen, ikerketa-ekoizpenaren bolumen absolutuari dagokionez. Denboraldi berean, UPV/EHU Euskadiko eragile zientifiko nagusia bihurtu zen, bere ekarpena % 45etik gorakoa izan baitzen. Dena den, ekarpen hori handiagoa ere bada, kontuan hartzen badugu hurrengo eragile zientifikoa osasun/ospitale-sistema, UPV/EHUK hein batean lagundua, izan zela; eta, zehazki, urte horietan % 25,6ko ekarpena egin zuen (ospitaleetako lau irakaskuntza-unitate daude: Basurtokoa, Gurutzetakoa, Gasteizkoa eta Donostiakoa).




Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Autonomia Erkidegoko Sareko eragile nagusiek egindako EAEko I+G-ko ekoizpen indexaturako ekarpena, ehunekotan, 2010ean (Iturria: Scopus)

Era berean, txostenean CIC (Ikerketa Kooperatiboko Zentroak)-en eta BERCs (*Basque Excellence Research Centre*) Donostia *International Physics Center*-en funtzioa azpimarratzen da, Euskal Autonomia Erkidegoko ekoizpen zientifikoaren % 13,2 egin baitzuten. Bigarrenaren kasua (DIPC) bereziki nabarmentzen da, ikertzaile-kopuru txikiagoa izan arren, 2010eko euskal ekoizpenaren % 5 sortu baitzuen.

Ikerbasquek ekoizpen osoaren % 1,2 egin zuen; bestalde, aliantza teknologikoen 2011ko erkapena (IK4 [AZTERLAN, CEIT, CIDETEC, GAIKER, IDEKO, IKERLAN, LORTEK, TEKNIKER y VICOMTech] eta Tecnalia) argitalpenen % 11,7koa izan zen. Deustuko eta Mondragon unibertsitateek ekoizpen txikiagoa garatu zuten 2011n: Deustuko Unibertsitateak ekoizpenaren % 1,8 eman zuen, eta Mondragon Unibertsitateak % 1,3.

Pisu erlatiboa

Ikerbasquek egindako txostenak gure inguruneke zientzia- eta ikerketa-adierazle nagusiak jakinarazten ditu bi urte behin. Txostenean adierazi dute ikertutako urteetan ekoizpen zientifikoaren hazkundera Espainian edo munduan baino askoz handiagoa izan zela Euskadin. Hala eta guztiz ere, dokumentu zientifikoei dagokienez, 2003. eta 2010. urte bitartean, munduan 2,21 milioi dokumentu ekoiztu ziren: 67.877 Espainiako estatuan, eta 3.000 Euskadin; estatuko % 4,7, hain zuzen ere. Espainia munduko hamargarren potentzia bilakatu zen ekoizpen zientifikoan.




2010ean indexatutako dokumentu guztien arabera, zientzia-ekoizpen handiena egin zuten herrialdeak (Iturria: Scopus)


I+G+b jardueretan diharduten pertsonak

2010ean, 11.070 pertsonak jarduten zuten zientzia-lanetan; eta kopuru horrek % 55eko igoera osatu zuen, 2003. urteko tasaren aldean. Pertsona horien ia % 75 UPV/EHUKoa zen. Dena den, I+G arloko langile-kopurua irabazi asmorik gabeko enpresetan eta erakundeetan hazi zen gehien: aliantza teknologikoen antolatuta (IK4 [AZTERLAN, CEIT, CIDETEC, GAIKER, IDEKO, IKERLAN, LORTEK, TEKNIKER y VICOMTech] eta Tecnalia, adibidez), baita CIC (Ikerketa Kooperatiboko Zentroak) edo BERCs (*Basque Excellence Research Centre*) bezalako sareetan sartuta ere.

Euskadiko ikertzaile-kopurua azpimarratzekoa da, inguruko beste lurralde batzuetakoarekin erkatuz gero. 2003tik, I+G arloko ikertzaile-



Personal investigador dedicado a actividades de I+D (Iturria: Eustat)




I+Gko ikertzaile kopurua milaka pertsona okupatuko (lanaldi osoko baliokidean) hainbat estatutan, Europako Batasuneko hainbat herrialdeetan eta Euskal Autonomia Erkidegoan (EAE) (Iturria: Eustat, Eurostat)

leen kopuruak (lanaldi osoko baliokidean) hazteari eutsi dio; horregatik, kopuru hori biztanle aktiboen % 1etik gorakoa da, Europako eta Espainiako batez bestekoen gainetik. Europakoa % 0,7raino ere ez da iristen, eta Espainiakoa % 0,6tik beherakoa da.

Txostenaren atal berean nabarmendu dute 2003tik 2011ra arteko bederatzirteetan, ia 2.200 ikertzaile berrik irakurri zutela euren tesia EAEko unibertsitateetan, eta tesi gehienak (% 80 baino gehiago) UPV/EHUn irakurri zirela.

Arloka

Euskadik zientzia-egitura klasikoa dauka, eta zientzia esperimentalek (fisika eta kimika, batik bat) garrantzi handia dute. Hori horrela, indexatutako ekoizpena xehetasun handiagotz aztertuz gero, honako lau diziplina hauek nagusitzen dira: Medikuntza (MED), Fisika eta Astronomia (PHY), Materialen Zientzia (MAR), Biologia Molekularra (MOL) eta Kimika (CHE). Sei arlok 2003an baino garrantzi handia-




Euskal Autonomia Erkidegoko ekoizpen zientzikoaren irudikapena, arloen arabera eta 2003. eta 2010. urte bitartekoa (Iturria: Scopus)

goa izan zuten 2010ean, eta honako hauek dira: Enpresa (BUS), Ingeniaritza Kimikoa (CHEN), Psikologia (PHYC), Ingeniaritza (ENG), Ingeniaritza Kimikoa (CHEN) eta Gizarte Zientziak.

Patenteak

Patenteen ekoizpenari dagokionez, txostenak aipatzen du Patenteen eta Marken Espainiako Bulegoak 1.485 euskal patente jaso zuela 2003. eta 2011. urte bitartean. Horren arabera, estatuko batez bestekoa baino apur bat altuagoa da Euskadikoa. EAE merezimendu handiko laugarren postuan dago, eta aurrean Aragoi, Nafarroa eta Madril ditu soilik. UPV/EHUK, bere aldetik, 2006. eta 2010. urte bitartean nabarmen handitu zuen bere patenteen kopurua.

Azkenik, oinarri teknologikoko eta zientzifikoko enpresak sortzeari dagokionez, txostenak aipatzen du UPV/EHUK 2002. eta 2010. urte bitartean 51 enpresa berri sortzen lagundu zuela, eta DeustoKabi enpresen haztegiak 13 enpresa berri eratu zituela.



UPV/EHUK bultzatu dituen oinarri zientzifikoko eta teknologikoko enpresen bilakaera ("spin-off" motako enpresak) (Iturria: OTRI)

Patenteak	2000	2001	2002	2003	2004	2005	2006	2007	2008	2009	2010
Espainiakoak	3	4	3	5	7	9	16	16	6	18	18
Europakoak				1			2	8	8	13	8
PTCs (*)				1	3	5	9	5	12	6	15
AEBetakoak		1				2	4	6	5	5	4
Beste batzuk								1	11	15	11
Guztira	3	5	3	7	10	16	31	36	42	57	56

UPV/EHUK erregistratu dituen patenteen bilakaera, 2000-2010 urte bitartean (Iturria: UPV/EHU)

(1. orritik dator)

errektoreordeak ez ezik, unibertsitateko dekanoak eta unibertsitate-eskoletako zuzendariak ere izendatzeko ahalmena izango du. Hautagaiak barnekoak zein kanpoak izan ahalko dira; eta, gutxienez, sei urteko ikerketa-lana egina izan beharko dute.

Kalitatearen ebaluazioa. Irakaskuntza- eta ikerketa-lana ebaluatzeko, kanpoko ebaluazioaren alde egiten du: al bait merkeena, al bait errazena eta publikoa. Ebaluazioaren emaitzak zeharo zabaldu beharko lirateke. Bere ustez, unibertsitate lehiakorrei eskaintzeko finantzazio-pizgarriak ezarri beharko lirateke, emaitzei lotuta.

Irakasle izateko sarbidea. Irakasle-laguntzaileen eskaintza zabaltea gomendatu du; eta, aldi berean, ohartarazi du ez dela komeni irakasle elkartu gehiegi izatea. Horrekin batera, emerituak aukeratzeko modua aldatzea proposatu du, ikerketa-merituei garrantzi handiagoa emate aldera. Kreditatze-sistema aldatzea iradoki du, katedradunei edo irakasle titularrei eskaintako lanpostuak lortzeko prozedura irekiagoa izan dadin. Beste atal batean, endogamia saihestea gomendatu du;

hau da, unibertsitate batek ezin du bertan ikasi duen doktore bat kontratatu (prestakuntza beste erakunde batzuetan ere jaso ez baldin badu); talde baten produktibitateari lotutako ordainsari osagarriak eratzea proposatu du, edo lanpostu bat betetzeko deialdiak nazioarteko esparrura zabaltzea.

Titulazioak. Besteak beste, «Bologna»k ezarritako ikasketaplanak, gaur egunekoak, aldatzea proposatu du, baita Europako beste eredu batzuen arabera beste plan bat ezartzea ere; zehazki, graduko ikasketek hiru urte eta master-ikasketek urte bat irau dezaten. Gainera, titulazioen eskaintzaren murriztapena, unibertsitateek adostua, aipatu du, elkarrengandik hurbil dauden hirietan espezialitate berberak ez eskaintzeko.

Finantzazioa. Txostenak salatzen du Espainiako estatuko unibertsitateen finantzazio eskasa. Espainiako unibertsitateak horregatik daude ospe handiena duten nazioarteko unibertsitateetatik hain urrun unibertsitate-sailkapenean. Hortaz, bikaintasuna lortzeko gai diren erakunde batzuei zuzendutako neurri bereziak hartzea gomendatu du, erakunde horiei beharrezko baliabideak bideratzeko, batik bat.

EAE: IKASLEKO GASTU ARRUNTIK HANDIENA DUEN AUTONOMIA ERKIDEGOA

Gastu arruntak ikasleko guztira		
1	Euskal Autonomia Erkidegoa	9.314
2	Kantabria	8.596
3	Katalunia	8.477
4	Nafarroa	8.313
5	Aragoi	8.098
6	Madril	7.322
7	Asturias	7.035
ESPAINIA		6.910
8	Gaztela eta Leon	6.705
9	Errioxa	6.585
10	Gaztela-Mantxa	6.514
11	Galizia	6.422
12	Valentziako Erkidegoa	6.339
13	Kanariak	6.028
14	Balearrak	5.988
15	Andaluzia	5.970
16	Murtzia	5.966
17	Extremadura	4.934

Langile-gastuak ikasleko		
1	Euskal Autonomia Erkidegoa	7.376
2	Kantabria	6.673
3	Aragoi	6.486
4	Katalunia	6.465
5	Nafarroa	6.050
6	Madril	5.717
7	Asturias	5.505
ESPAINIA		5.327
8	Gaztela eta Leon	5.132
9	Errioxa	5.029
10	Kanariak	4.957
11	Galizia	4.928
12	Murtzia	4.774
13	Balearrak	4.711
14	Andaluzia	4.689
15	Valentziako Erkidegoa	4.529
16	Extremadura	4.506
17	Gaztela-Mantxa	4.159

Ikasleek ordaindutako prezio publikoak (gradu ikasketak) (€)		
1	Aragoi	984
2	Nafarroa	977
3	Madril	954
4	Balearrak	927
5	Katalunia	925
6	Gaztela eta Leon	854
7	Asturias	840
8	Gaztela-Mantxa	837
9	Kantabria	828
ESPAINIA		826
10	Errioxa	818
11	Extremadura	815
12	Murtzia	790
13	Andaluzia	773
14	Euskal Autonomia Erkidegoa	753
15	Galizia	732
16	Valentziako Erkidegoa	693
17	Kanariak	657

Iturria: Espainiako Unibertsitateetako Errektoreen Konferentzia (CRUE): "Espainiako Unibertsitatea zifratzen, 2010"

Euskadi da ikasleko gastu arruntik handiena duen autonomia erkidegoa (9.314 eurokoa, Espainiako 6.910 euroko batez bestekoaren aldean). Era berean, ikasle-kopuruko langile gehien ordaintzen duena da (7.376 euro, 5.327 euroko batez bestekoaren aldean). Datuak *Fundación Conocimiento y Desarrollo* erakundeak egin duen honako txosten honetatik atera dira: *Las universidades españolas. Una perspectiva autonómica 2012*. Txostenean Espainiako estatuko unibertsitate guztiei buruzko datuak, 2010eko ekitaldikoak, bildu dira.

Era berean, Euskal Autonomia Erkidegoa bigarrena da ikasleko transferentzia arrunt eta publikoak sailkatzeko zerrendan (7.331 euro; 5.791 euroko batez bestekoaren aldean). Nafarroa soilik gaintzen du zifra hori, baina ez dago alde handirik (7.736 euro). Ikasleek ordaintzen dituzten prezio publikoei dagokienez, EAE hamalagarren posizioan dago (753 euro; 826 euroko batez bestekoaren aldean).

Graduko ikasketak eta lan-merkatua

Azterlan berean adierazi dute 2011n goi mailako ikasketak zituzten biztanleen ehuneko handiena Euskal Autonomia Erkidegoak zuela. Izan ere, 16 urtetik gorako herritarren % 35,4k ikasketak-maila hori zuen; eta estatuko batez bestekoa, ordea, % 25,1ekoa zen.

Aitzitik, langabezia-tasa aztertuta, ikerlanak erakusten du Euskadiko tasa % 8,7koa dela, % 13,5eko batez bestekoaren aldean. Beraz, hirugarren mailako ikasketak dituzten biztanle langabetuen zerrendan azkena da.

16 urtetik gorako biztanle okupatuena eta langabetuen tasa, 2011koa (%).
Hirugarren mailako ikasketak zituztenen eta biztanle guztien arteko konparazioa

	Okupazio-tasa guztira	Okupazio-tasa, hirugarren mailako ikasketekin	Langabezia-tasa guztira	↓ Langabetuen tasa, hirugarren mailako ikasketekin	Okupazio-tasarekiko aldea	Langabezia-tasarekiko aldea
Kanariak	43,3	64,5	30,9	19,5	21,2	-11,5
Extremadura	38,9	64,9	28,6	18,5	26,0	-10,1
Andaluzia	40,5	65,0	31,2	17,9	24,5	-13,4
Murtzia	45,6	70,4	26,8	16,0	24,7	-10,8
Valentziako Erkidegoa	45,0	67,8	25,4	15,3	22,8	-10,1
Gaztela-Mantxa	44,5	71,8	24,5	15,2	27,3	-9,3
Balearrak	48,1	66,5	25,2	15,1	18,4	-10,1
Asturias	42,0	67,0	18,9	13,9	25,1	-5,0
ESPAINIA	46,2	70,7	22,8	13,5	24,5	-9,4
Galizia	45,2	72,0	18,3	12,6	26,8	-5,7
Katalunia	49,7	74,6	20,5	12,6	24,9	-7,9
Errioxa	48,5	73,6	18,7	12,5	25,1	-6,2
Kantabria	47,5	69,4	15,9	11,7	21,9	-4,3
Gaztela eta Leon	45,6	71,5	17,2	11,7	25,9	-5,5
Madril	52,0	72,8	18,5	11,1	20,8	-7,4
Aragoi	48,7	75,3	16,8	10,1	26,6	-6,8
Nafarroa	51,5	73,7	13,8	19,9	22,1	-3,9
Euskal Autonomia Erkidegoa	51,2	74,8	12,6	18,7	23,6	-3,9

Iturria: Estatistikako Institutu Nazionala (INE).

2011n goi mailako ikasketak zituzten 16 urtetik gorako biztanleen ehuneko (%).
2007. eta 2011. urte bitarteko aldaera (ehuneko puntuak).

	↓ Goi mailako ikasketak dituzte %	2007-2011 urte bitarteko aldaera (ehuneko puntuak)
Euskal Autonomia Erkidegoa	35,4	0,9
Madril	35,0	3,3
Nafarroa	31,0	1,3
Kantabria	28,0	1,8
Aragoi	27,6	2,7
Asturias	27,3	4,0
Errioxa	25,8	3,0
Gaztela eta Leon	25,5	3,0
Katalunia	25,3	2,5
ESPAINIA	25,1	2,0
Valentziako Erkidegoa	23,7	2,0
Galizia	23,2	1,0
Andaluzia	20,3	1,1
Murtzia	20,2	0,8
Balearrak	19,8	2,7
Kanariak	19,6	-0,1
Gaztela-Mantxa	19,2	2,7
Extremadura	18,5	1,6

Iturria: Estatistikako Institutu Nazionala (INE).

Oharra: Datuak urte bakoitzeko laugarren hiruhilekoari dagozkio

Aitzitik, langabezia-tasa aztertuta, ikerlanak erakusten du Euskadiko tasa % 8,7koa dela, % 13,5eko batez bestekoaren aldean. Beraz, hirugarren mailako ikasketak dituzten biztanle langabetuen zerrendan azkena da.